

10

EUSKURA

euskara eta kultura

Xabier Azkue Ibarbia

Euskara teknikaria eta kulturagilea

xabierazkue@gmail.com

Sarrera-data:2014-09-30/ Onartze-data: 2014-11-30

Laburpena. Euskarazko kulturagintza sendotzeak euskara bera indarberitzeko balio duela sinetsita, Zumaiaiko talde eta erakundeen sarea aztertu eta estrategia batzuk proposatzen ditu egileak: auzolana bultzatzea, hiztun komunitatea trinkotzea, lidergoa baliatzea, elkarrekin egitea, identitatea lantzea, sarea jostea, ekosistema zaintzea... Euskal Kulturagintzaren Transmisiorako ikastaro amaieran egindako proiektuaren laburpen moduko bat da hau, beste elkarte edo herriren batzuetan antzeko proposamenak egiteko lagungarri izan daitekeena. Lehen bi ataletan Zumaian euskal kultura nola lantzen den aztertzen da; hasteko esparruz esparru, eta ondoren, xeheago, kulturaren sarea nola antolatuta dagoen. Hurrengo bi ataletan, berriz, ideia batzuk ematen ditu egileak euskarazko kulturagintza indartzeko, elkarte batzuei ardurak emanda, taldeen artikulazioa hobetuta eta kultur politika argiagoarekin. • *Hitz-gakoak:* euskara, kulturagintza, komunitatea, auzolana, ekosistema, herrigintza, lidergoa.

Abstract. Believing that strengthening Basque language cultural activity helps to breathe new life into the Basque language, the author has studied Zumaia's network of groups and organisations and is proposing some strategies: encouraging communal work, the condensing of the community of speakers, making use of leadership, working together, working on identity, weaving a network, looking after the ecosystem, etc. This is a kind of summary of the project produced at the end of the course on Transmitting Basque Cultural Activity, which could be of use in making similar proposals in other associations or towns. The first two sections look at how Basque culture is developed in Zumaia; firstly sphere by sphere, and then, in more detail, how the culture network is organised. In the next two sections the author offers some ideas for strengthening cultural activity in Basque, by giving some associations responsibility with an improved setup of the groups and a clearer culture policy. • *Key words:* Basque, cultural activity, community, communal work, ecosystem, nation building, leadership.

Komunitatearen sorkuntza-bideak dira
gureak bezalako kulturen potentziala

Jon Sarasua
(Hiztunpolisa liburuan)

Aspalditik euskararen eta kulturaren inguruan ari naiz lanean, eta azken 2-3 urteotako esperientziek bi arloak gero eta gehiago lotzera eramane naute; ondorioz, EUSKARA eta kultURA uztarri berean ikusten ditut, biak eskutik helduta: EUSKURA.

2011tik hasita, iturri askotatik edateko aukera izan dut: Soziolinguistika Klusterraren jardunaldia kulturgintzaz, Topagunearen gogoetak, *Euskal Kulturgintzaren Transmisioko* saioak, hitzaldiak, liburuak, artikuluak, udalean proiektu bereziak... Hitz gako batzuk behin eta berriz errepikatu zaizkit *zurrutada* horietan: auzolana, komunitatea, lidergoa, elkarrekin egitea, identitatea, sarea, ekosistema...

Zumaiako hiztun komunitatean eragiten duten talde eta erakundeak jaso eta erakutsi nituen *EKT* ikastaro amaierako proiektuan, eta horrekin batera komunitate horri euskal kulturaren bitartez sendotzeko estrategia batzuk proposatzen ere ahaleginu nintzen. Helburua izan zen galdera honi erantzutea: zer egin dezakegu euskarazko kulturgintza bultzatzeko? Artikulu honen bitartez, proiektu haren laburpena eskaini nahi dut, beste elkarte edo herriren batzuen egarria asetzeko lagungarri izan daitekeelakoan.

Lau atal bereiziko ditut horretarako: 1) Esparruz esparru euskal kultura nola lantzen den; 2) Kulturaren sarea xeheago nola antolatuta dagoen; 3) Euskarazko tokiko hedabideen eta bertso eskolaren egitekoa; 4) Kultur politika eta taldeen artikulazioa.

1. GIZARTE KAPITALARI "EUSKAL BEGIRADA"

Euskal Herriko beste herri askotan bezalaxe, gizarte sare oso aberatsa dago Zumaian. Gizarte kapital bezala ulertu behar da, eta behar baino gutxiago hartu izan da kontuan politikak eta planak gauzatzeko orduan. Askotan "eragileen zerrenda" bezala lantzen dira, bakoitzaren indarrak eta aukerak baliatu gabe.

Saioa Olmo artistak 2005ean *Divergentes* egitasmoan Zumaiako elkarte eta talde nagusiak jaso zituen panel batean; arlo bakoitzekoak lerro batean kokatuta, eta kolore bidez arlo bat baino gehiago hartzen dutenak adierazita. Artistaren asmoa izan zen Zumaia pertsonen arteko harremanen bidez erakustea.

**Taldeen
unibertso edo
ekosistema horri
begira, galdera
hauei erantzuten
saiatuko naiz:**

• **Zer egiten da
euskal**


**kulturarekin
lotuta?**

• **Udalarekin
nolako
harremana dute
taldeek esparru
bakoitzean?**

• **Badaude alor
horretan
herritarrak
elkartzeko
organoak edo
espazioak?**

• **Nolako
elkarreragina
dago elkarte
arten?**

1. irudia. Saioa Olmo, *Divergentes* egitasmoa, 2005



Begi itxurako irudi horrek ikuspegi batetik ala bestetik begiratzeko aukera ematen du: berdintasuna nola lantzen den, jatorri aniztasuna... Nik *euskal kulturaren betaurrekoak* jantzita aztertu nahi ditut arlo batzuk, udal sailetatik abiatu eta gero fokua elkarteetan eta sareetan jarrita.

Jon Sarasuak hauxe dio, *Hiztunpolisa* liburuan:

Euskararen bizitasun soziolinguistikoa beste maila bateko sareei esker erreproduzitzen ari da, gaur eta hemen behintzat. Euskararen komunitatean hainbat modutara birsortzen den gizarte kapital ezohiko horrek ematen dio bizia hizkuntzarekiko hautu pertsonalari.

Gertuko gizarte ehun horrek duen bizi-indar maila erabakigarria izango da euskal kulturgintzarentzat. (...) Euskararen zoria gertuko igurtziari eta ehunari lotuta dago neurri batean.

Hori aintzat hartuta, atal honetan Euskaratik Kulturara bidaiatxo bat egitea proposatzen dizuet; beraz, esparruz esparru sare horren ikuspegia aztertuko dugu, denetan egin daitekeelako zerbait euskal kultura bultzatzeko. Taldeen unibertso edo ekosistema horri begira, galdera hauei erantzuten saiatuko naiz:

- Zer egiten da euskal kulturarekin lotuta?
- Udalarekin nolako harremana dute taldeek esparru bakoitzean?
- Badaude alor horretan herritarrek elkartzeko organoak edo espazioak?
- Nolako elkarreragina dago elkarteen artean?

Galdera gehiago ere sortuko dira bidean, eta esperientzia interesgarri batzuk aipatzen ere saiatuko naiz, herrian lantzeko moduko proposamenak izan daitezke eta.

1.1 Euskara

Urte asko dira Udala planak landu eta herritarrei begirako ekintzak eta jarduerak antolatzen hasi zela. Euskararen Aholku Batzordea izenekoan herriko talde, ikastetxe eta norbanakoak elkartzeko dira, gaiei jarraipena egin, ekintzak proposatu eta proiektuak lantzeko: euskararen aldeko jaiak, material berezia sortzea, gogoeta bultzatzea...

Lan egiteko modu berriak lantzen ari dira Euskara Zerbitzuan; esate baterako, erabilera plana berritzen *Eralan* egitasmoaren bitartez. Lidergo eraldatzailearen kontzeptua baliagarria izan daiteke herriko taldeetako kideekin lantzeko ere: hizkuntzari eustearen garrantzia, motibazioa, komunikazioa, enpatia, auzolana, gizarte erantzukizuna...

Kulturarekin lotutako jarduera batzuk arlo honetatik bideratzen dira; adibidez, literaturari dagozkionak: *Julene Azpeitia* ipuin lehiaketa antolatzen du 1988tik, idazteko tailerrak antolatzen ditu urtero idazle ezagunekin, eta irakurle taldean euskarazko lanak aztertzen dituzte hilean behin.

Azterlanak egitea eta gizarteratzea da beste arlo bat, eta azken 15 urteotan hitanoa, herriko hizkera eta toponimia jorratu dira. Berriak egiteko asmoa ere badu sailak: euskararen historia soziala, lexikoa...

Euskara ikasten ari direnek laguntzak jasotzen dituzte, eta etorkinei zuzendutako eskola bereziak ere antolatzen dira. Horiez gain, hedabideak diruz laguntzeko hitzarmenak sinatuak ditu Udalak.

2012tik geroztik urtero *Euskara, bestela ez gara* izeneko hitzaldi zikloa antolatzen du sailak, hizlari ezagunekin: Kike Amonarriz, Paula Kasares, Jon Sarasua, Jone Miren Hernandez, Iñaki Martinez de Luna... Saioak osorik grabatu eta denen esku jartzen dira sarean, kronika banaz la-

***Euskararen
Aholku
Batzordea
izenekoan
herriko talde,
ikastetxe eta
norbanakoak
elkartzeko
dira, gaiei jarraipena
egin, ekintzak
proposatu eta
proiektuak
lantzeko:
euskararen
aldeko jaiak,
material berezia
sortzea, gogoeta
bultzatzea...***

**Ikastetxeetan
euskara lantzen
da, baina
euskaltasuna
bera ez
hainbeste.
Batxilergoko
neska-mutilei
soziolinguistikako
oinarrizko
azalpenak
emateak lagundu
lezake
kontzientzia
pizten.**

gunduta. 2015ean tarte berezi eskaini nahi diote hizkuntza ekologiarri; Eusko Ikaskuntzak bideratuta *Dikoma* egitasmoan elkarrizketa batzuk egin ziren, talde batzuk gaiaz gogoeta egiten jarri ere bai, eta asmoa dute saio batean horren berri emateko.

Zumaia herri euskalduna da, UEMAn sartuta dago, eta arnagune moduko bat da euskararentzat. Besteak beste, horren kontzientzia zabaltzeko eta oro har soziolinguistikari buruzko gogoeta bultzatzeko, aukera ona litzateke blog bat abiaraztea, edo irakurle taldeetan bezala elkartu eta gai batzuei buruz hitz egitea, Iruñean eta Donostian egiten duten bezala, *Karrikiri* eta *Bagera* elkarteek bultzatuta.

1.2 Hezkuntza

Herriko ikastetxeak, guraso elkarteak eta Udaleko ordezkariak Eskola Kontseiluan elkartzen dira eta azpimarratzeko modukoa da nola lantzen diren gai berezi batzuk herriarekin lotuta. Neurri batean herriko curriculum² baten oinarriak dira: Zumaia ezagutzen, gerra zibila, hitanoa, herriko leku izenak. Era berean, hizkuntzarekin eta kulturarekin lotutako gai gehiago ere jorratzen dituzte: motibazio saioak (euskararen erabilera), bertsoak, idazleen bisita eta euskarazko zinema. Ikastetxeen laguntzarekin, San Telmo literatura sariak antolatzen ditu Udalak urtero: ipuinak, bertsoak, olerkiak eta mintzamen saioa. Egitasmo orokor horiez gain, ikastetxe bakoitzak ere antolatzen ditu bere aldetik hainbat gauza.

Ludotekan urritik ekainerako eskaintzaz gain, familientzat irteerak antolatzen ditu museoetara, eta jostailuen erakusketak ere bai. Udaleku irekiak euskaraz egiten dira, eta gune egokia² izan daiteke sormenari tarte berezia eskaintzeko.

Ikastetxeetan euskara lantzen da, baina euskaltasuna bera ez hainbeste. Batxilergoko neska-mutilei soziolinguistikako oinarritzko azalpenak emateak lagundu lezake kontzientzia pizten; hala egiten dute Elgoibarren, tailer bereziak lantzen dituzte euskara elkartearekin, eta ikasleekin Euskara Batzordeak eratzen dituzte. Lan horretan gakoak dira irakasleen jarrera³ eta herrian bertan aukera ematea kezka horiei erantzuteko: euskararen asteen jarduerak, proiektu berriak sortzea...

Euskal kantagintzaren historia bera, zenbateraino eta nola lantzen da eskoletan? Irakasle batek baino gehiagok esan du 13-14 urteko gazteek ez dutela Negu Gorriak taldea ezagutzen. Hutsune horrez jabetu eta Eñaut Elorrieta eta Mikel Markez “Baga, biga, higa” izeneko emanaldi didaktikoak eskaintzen ari dira herriz herri. Ikastetxean bertan ala kanpoan gai hori gazteekin landu nahi duenak baditu erreferentzia intergarriak eskura: Badok.info gunea, *Entzun* eta *Gaztezulo* aldizkariak...

Oro har, esperientzia politak abiatu dituzte Oarsoaldean eta Arrasaten ere; ume eta gazteen interesguneetatik abiatzea parte-hartzea bultzatzeko, eta bide horretan sormena bultzatzeak aukera ematen du hizkuntzarekin jolastu eta kultura elikatzeke.

1.3 Gizartea

Nagusien Mahaia izenekoan elkartzen dira elkarteetako ordezkariak eta Udalekoak. Kulturarekin lotutako jarduerak taldeen bitartez antolatzen dira gehienbat esparru honetan: Alkoholikoen hitzaldiak, adinekoei zuzendutakoak... Zahar etxean bertan antolatzen dira hitzaldi, ikastaro eta txango batzuk, ia denak gaztelaniaz. Zentro gerontologikoan eta adinekoei egoitzan bertan daudenei zuzendutako eskaintza egiten dute; euskal kulturarekin lotuta ezer ez, ordea.

Gune horretan egin daitezke herriko hizkeraren aitzakian solasaldiak adineko jendearekin. Esaterako, www.ahotsak.com guneko elkarrizketak baliatuta, argazki zaharrekin antola daiteke emanaldia, duela 100 urteko Zumaia oraingoarekin alderatu... Informazioa emateko eta jasotzeko aukera oso ona izan daiteke.

1.4 Kirola

2006-2012 bitartean *Euskara Sasoian* egitasmoa egon zen martxan, eskualde mailan kirol elkarteetan euskararen erabilera bultzatzeko, eta Zumaiako 11 elkartek parte hartu zuten. Gaur egun Kirol Mahaiaren bitartez koordinatzen dira taldeak. *Flyschtrail* mendi lasterketan eta antzekoetan badago ohitura elkarte gastronomikoetara eta boluntarioengana jotzeko laguntza eske.

Zumaiako Kirol Patronatua sortu berria da, eta kiroldegiko jarduerak enpresa baten bitartez bideratzen dira. Ikastaro piloa antolatzen dira, horietako asko musikarekin, eta euskara gutxi izaten da horrelakoetan: Aerobic, Cycling, Zumba...

Kulturarekin izan dezaketen ekintza batzuk egiten dituzte taldeek oro har: hitzaldiak, argitalpenak, probetan musika... Megafoniatik euskaraz edo euskaraz gehiago egiten da. Hala ere, esatarien poltsa bat eskura izatea ondo etorriko litzateke, probetan euskaraz txukun aritzeko.

Arraun taldeak dirua biltzeko antolatutako dirua biltzeko bertso saioa antolatu zuen 2013an, eta arraunlariak animatzeko taldearentzat himnoa sortu zuen Jon Maiak. Surf taldeak, berriz, jaiak, kontzertuak eta bideo lehiaketak antolatzen ditu, eta azken lehiaketan saritutakoen artean ez zen euskarazkorik egon.

Gazteek batez ere euskaraz hitz egiten dute; 2011ko kale erabileraren neurketan gazteen elkarrizketen %70 inguru euskaraz izaten zirela jaso zuten. 2014an Izan zeresan gogoeta egin zuten gazte asanbladakoek, gazteen kezka nagusiak adosteko eta ez zen euskara horien artean agertu.

1.5 Gazteria

Gaztegunean berdintasuna, euskara eta migrazioa zehar-lerro bezala lantzen dira, eta 100 gazte baino gehiagok hartzen du parte. Ohiko jardueraz gain (tailerrak, emanaldiak, irteerak...) antolatzen diren ekintza berezien bitartez gaztetxoek euskararekiko duten jarrera hobetu nahi da.

ZUGA gazte asanbladan mugitzen dira beste gazte batzuk, eta Torreberri gaztetxea kudeatzen dute. Harremanik ez dute Gazteria Sailarekin. Jarduera ia denak euskaraz izaten dira, eta ekintzak www.galernasarean.info gunean biltzen dituzte; sormenarentzako atala ere badute: bertsoak, bideoak, lehiaketak...

Gazteek batez ere euskaraz hitz egiten dute; 2011ko kale erabileraren neurketan gazteen elkarrizketen %70 inguru euskaraz izaten zirela jaso zuten. 2014an *Izan zeresan* gogoeta egin zuten gazte asanbladakoek, gazteen kezka nagusiak adosteko eta ez zen euskara horien artean agertu. Badakigu, hala ere, unibertsitatera jauzi egiterakoan asko aldatzen dela erabilera hori, eta gogoeta egiteko eredu bezala har daiteke *Ika-mizka* jarduera, *Gaztezulo* aldizkariak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatutakoa.

Gazteen artean indarra hartu duen beste fenomeno bat lokalak dira. 14-15 urterekin hasten dira gazteak lokalak hartzen, eta talde handietan egin ohi dute. 20tik gora badaude gaur egun Zumaian. Neurri batean horrela pasibotasuna eragiten dela iritzita, Gernikan egun bereziak antolatzen dituzte *Astra* gunean, eta beste herri batzuetan, Hondarribian, esaterako, *herri olimpiadak*, jolasak, kirola eta kultura uztartuta.

1.6 Aniztasuna

Oraintsu arte ekintza gutxi antolatu dira herrian kanpoko kulturei dagokienez: sukaldaritzarekin lotutako batzuk, urte txinatarraren hasiera... Udalak eskatuta, aniztasunaren inguruko azterlan batzuk egin dira azken urtean, eta ondorioak aurkezteko saioak antolatu dituzte 2014ko abenduan. Asmoa dago, gainera, herritarrekin eta elkarteekin Anitzen Sarea osatzeko. *Baleike* aldizkariaren zenbakia berezia atera zuen 2014ko otsailean, "Munduko zumaiarrak" izenekoa.

Gipuzkoan oro har elkarteekin eta udalekin gaia zabal lantzen ari dira, eta aurrerantzean jarduerak antolatzeko orduan komeni da euskara aintzat hartuta beste herrietan zer egin duten ikustea, adibidez, *EH11kolore* ekimenean.

1.7 Berdintasuna

Udaleko sailak eta elkarteek Berdintasun Foroa osatzen dute eta ekintza batzuk antolatzen ditu, batez ere martxoaren 8aren eta azaroaren 25aren inguruan: erakusketak, jardunaldiak, filmak, ikastaroak... 2014an landu

da II. Berdintasun plana. Euskara erabiltzen da kartel eta agirietan; hala ere, eskaintza aldetik euskararen erabilera urria izaten da batzuetan gero: haurrei zuzendutakoak eskaintzak izaten dira batez ere.

Taldeek askotan hobeto ezagutzen dituzte euskal kulturatik kanpoko eskaintzak, eta Euskara eta Kultura Sailen bitartez topa daitezke berdintasuna lantzeko jarduerak euskararen inguruan, esaterako, bertsolariak, filmak, antzezlanak...

1.8 Turismoa eta Merkataritza

Merkatariek elkarte bat badute, eta Udalarekin batera Zumartian izeneko plataforma osatzen dute. Antolatzen diren jarduera batzuk: musika, haurrentzat jolasak, azokak... Euskara Sailarekin ere kanpaina batzuk bideratu izan dituzte.

Dendetan jartzen den irrati katea, tabernetako musika edo telebista saioa... establezimendu askotan egunero bultzatzen da kultura bat ala bestea, eta euskal kultura gutxi agertzen da horrelakoetan. Formatu txikiko kontzertuak eta bakarrizketak antolatzeko ohitura errotzen ari da azken urteotan, Udalaren laguntzarekin.

Turismo bulegoak lan handia egiten du antzerki eta emanaldietarako sarrerak aurrez saltzen. Irteera turistikoei dagokienez, duela 4-5 urtetik aurrez erabakitako jarduera batzuetan euskarazko eskaintza bermatzen da. Olarro egunean itsas kulturarekin lotutako jarduerak antolatzen dira eta herriko elkarteek zuzenean hartzen dute parte: panelak, estropadak, batelen eta antzinako ontzien erakustaldiak, erakusketak...

Geoparkean (Mutrikun, Deban eta Zumaian) ahozko ondarea ere lantzen hasi dira, bideo bereziak prestatu zituzten 2013an. Bide horretatik jarraitu eta herritarrentzat eta ingurukoentzat eskaintza lantzea izan daiteke lanerako ildo interesgarri bat.

1.9 Hirigintza

Azken bi hamarkadetan asko aldatu da Zumaia, eta hirigintza planek eragin handia izan dute kultur ondarean ere: industriarekin lotutako eraikinak galdu dira, garai bateko garbitokiak, ondare txikia ere bai... Beste kasu batzuetan espazio berriak irabazi ditu kulturak, esate baterako 2011n inauguratutako kultur etxe berria Alondegian.

Nolanahi ere, badira beste eraikin batzuk kulturaren motor izateko aukera eskaini eta geldu daudenak, esaterako, Komentua. Udalak proposamenak jasotzeko deialdia egin zuen 2009an, eta herriari begirako planteamendua egin zutenen artean bazegoen nolabaiteko osagarritasun bat: eliza izandakoa emanaldi eta entseguetarako, aterpetxea batez ere

Ikastaro asko antolatzen dira urtero, euskaraz gehienak, eta sormena bultzatzekoak ere izan dira batzuk: antzerkia, gidoigintza... Beharbada hori sakondu eta harrobia lantzeko estrategiak zehaztea falta da.

erromesentzat, baratzak herriari zabaldu, herri museo bat jarri... Ia dena paperetan geratu da, oraingoz. Estalitako pilotalekurik gabe ere urteak daramatza herriak, eta antzematen da neguko ekitaldietan; 2015ean konponduko da arazo hori.

Lurralde antolamenduak hizkuntzan eta herriaren izaeran eragin handia izan dezakeela ere ikusi dute 2014an Udaleko ordezkari batzuek, UEUren bitartez antolatutako jardunaldietan. 2015ean ere jardunaldi horiekin jarraitzeko asmoa dute, besteak beste, UEMAK, Kontseiluak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatuta.

1.10 Ingurumena

Zumaia gero eta ezagunagoa da geologia eta natura kontuak tarteko. Azken urteotan hori indartzen saiatu den etxea da Algorri interpretazio zentroa. Erakusketaz gain, hitzaldi aretoa ere badu, eta ingurumen sailarekin elkarlanean antolatzen ditu Zuhaitz Eguna, Aste Berdea, argazki rallyak, Agenda 21 ikastetxeekin, bigarren eskuko gauzen azoka... Kanpoko ikastetxeekin eta herrikoekin jarduerak antolatzen direnean, aukera ezin hobea dago herri kulturarekin lotutako kontuak lantzeko: arrantzatzeko tokiak, tresnen izenak...

1.11 Kultura

Alondegia kultur etxe berria da erdigunea eta jarduera gehienak bertan antolatzen dira: erakusketak (herriko artistak eta kanpokoak), hitzaldiak, haurrentzat ipuin kontaketak, aurkezpenak...

Jaiek pisu handia dute aurrekontuetan eta jardueretan: inauteriak, santelmoak, sanpedroak, udako jaiak eta Gabonak antolatzen dira sail honetatik; gehienetan deialdi bereziak egiten zaizkie taldeei antolatzen laguntzeko. Auzoetako jaiak, berriz, diru-laguntzak ematen zaizkie. Euskaraz egiten dira jarduera gehienak.

Aita Mari zinema emakida bidez kudeatzen da, eta euskarazko filmen estreinaldiak azkar eman izan dituzte. Hilero helduentzat antzezlan bat izaten da, ia denak euskaraz. Eskaintza oparoa du Zumaiak kontsumoaren ikuspegitik.

Musika jaialdia antolatzen da abuztuan duela 30 urtetik; egitarau zabala du, eta euskal musikariei tartea eskaintzen zaie. Musika alorreko elkarteak Musika Patronatuan elkartzen dira eta beste jarduera batzuk ere antolatzen dituzte: Zezilia egunekoak, klarinete maratoiak, metal topaketak... Musika Eskolak 400 ikasle baino gehiago ditu, antzerkia eta dantza barne hartzen ditu, eta herrira begirako jarduerak ere antolatzen ditu: inauterietan jaiak...

Ikastaro asko antolatzen dira urtero, euskaraz gehienak, eta sormena bultzatzekoak ere izan dira batzuk: antzerkia, gidoigintza... Beharbada hori sakondu eta harrobia lantzeko estrategiak zehaztea falta da.

2011ko neguan, *Kultura Zumaian 2020* egitasmoari lotuta, diagnostiko bat landu zuen Udalak elkarteekin. Proposamenen edo ideien zerrenda gisa har daiteke, helburu eta estrategia nagusiak ez zirelako bereizi. Gogoeta horrek emaitza batzuk ere utzi zituen, ordea: elkarteen proposamena aintzat hartu eta Kultura Mahaia eratu zuen 2012an Udalak. Hasierako funtzio hauek zehaztu zituen:

- Mahaia eztabaidarako eta hausnarketarako egitura izango da, herritarren ekarpenak eta iradokizunak partekatzeko eta dinamika berriak eragiteko lekua.
- Herritarren eta Udalaren arteko harremanetarako egitura iraunkorra izan nahi du.

Zoritxarrez, Mahaiak ez zuen indartsu arrankatu eta parte-hartzea txikia izan da. Berri emateko gunea izan da batez ere; diru-laguntzen kontuak, aurrekontuenak eta lokalenak hitz egin izan dira. Mahaiak euskaraz funtzionatzen du, baina ez du oinarririk planteatu euskal kulturaren inguruan, ez da gogoetarik egin; ez da euskara erdigunean jarriko duela inon jaso.

2. KULTUR ELKARTEEN SAREA

Deban azterketa zabal bat⁴ egin zen kultur taldeei buruz, elkarrizketa eta galdetegi sakonekin, eta Zumaiako egoera jaso nahi izan nuen, antzeko hurbilpen bat egiteko. Aukera izan dut ikusteko egoera hobea dela Zumaiako taldeena, euskarak eta euskal kulturak presentzia eta pisu handiagoa dutela.

Zuzenean kulturaren alorrean ari ziren talde eta elkarteek aparteko lanaketa bat merezi zutela iritzita, galdetegi bat prestatu eta posta elektronikoz bidali nien, eta erantzuna bikaina izan zen, 29 bidali eta 27 jaso nituelako (%93). Besteak beste, puntu hauen berri emateko eskatu nien: komunikazioa, kide aktiboak eta bestelakoak, urteko ekintza nagusiak, taldeekin harremanak, jardueren hizkuntza, bilerak, euskal kultura eta sormena taldean, Zumaiako kulturaren egoeraren balorazioa, Kultura Mahaia eta aurrera begirako asmoak. Horietako batzuk azalduko ditut labor atal honetan.

Elkarte gehienek euskaraz funtzionatzen dute, galdetegieta erantzundakoaren arabera. Datu nahiko onak dira, eta Zumaiako zuzendari edo arduradun batzuk hizkuntza liderrak direlako izan daiteke, agian.


2.1 Komunikazioa eta hizkuntzen kudeaketa elkarteetan

Sare sozialetan mugitzen dira talde batzuk, Facebook bidez asko (15), eta blogak edo webguneak ere badituzte batzuek (13k), nahiz eta aspaldian gehienak geldi samar dauden.

Agendan hobetzeko puntuak ikusten dira, gertatzen delako egun eta ordu berean ekintza bat baino gehiago egotea. Jarduerak garaiz antolatu eta Kultura Sailari aurrez jakinarazteak plangintza hobeto egiteko aukerak erraztuko lituzke, zalantzarik gabe.


Elkarte gehienek euskaraz funtzionatzen dute, galdetegietan erantzundakoaren arabera. Datu nahiko onak dira, eta Zumaiako zuzendari edo arduradun batzuk hizkuntza liderrak direlako izan daiteke, agian. Hori babesteko, lagungarria litzateke jarraibide edo aholku batzuk ematea, euskaraz ez dakien bat egoteagatik bakarrik talde oso baten hizkuntza erraz alda daitekeelako, arduradunak hala proposatzen badu.

1. grafikoa. Bileretako hizkuntza elkarteetan




Azpimarratzekoa da ekintza gehien-gehienak euskaraz edo batez ere euskaraz egiten direla. Esaterako, Musika Bandak arte irakasle batekin kontzertu berezi bat antolatu zuen, eta azalpenak euskaraz izan ziren.

2. grafikoa. Elkartetako jardueren hizkuntza



Kolektibo batean bilduta daude musika taldeak, eta kanten hitzei dagokionez, gehiago dira nahastuta edo beste hizkuntzetan abesten dutenak: taldeen ia laurdenak euskaraz abesten du (4k), gaztelaniaz 5ek, ingelesez 5ek, eta nahastuta edo ez dakigu nola beste 5ek. Azpimarratzeko modukoa da talde batzuek egin duten ahalegina beste diziplina batzuekin uztartzeko, esaterako, *Big Boy* taldeak ikus-entzunezkoekin.

3. grafikoa. Musika taldeen hizkuntza abestietan



Zumaiako gazte batzuen azalpena. Euskal kultura ez dugu bereziki lantzen; erromeriak eta bertso saioak bai, baina bestelako gauza asko ere antolatzen ditugu, hip-hop saioak adibidez. Badago berrituz eta nahastuz lehengoari jarraipena emateko borondate moduko bat.

Herriko eragileekin elkarlanean segitzea da gure asmoa, herriari kultur produktu berritzaile eta erakargarriak eskaintzeko; azken batean, horixe baita herrigintza.

Lan honetan euskal kulturaren definizio hau erabili dut: **euskaraz egiten dena eta/edo euskara erdigunean jartzen duena**. Hala ere, taldeei ez nien argibiderik eman, eta zaila da jakitea, “euskal kultura” esanda bakoitzak zer ulertzen duen; talde batean ere nekez izango dute denek irudi bera. Erantzunetan ikusten da gehienek kontzientzia garbirik ez dutela gai honen inguruan, eta folklore kontu batzuekin lotzen dute. Topikoak etortzen zaizkigu gogora, turisten ikuspegia daukagu euskal kulturaz. Zumaiaiko gazte batzuen azalpena horren adibide:

Euskal kultura ez dugu bereziki lantzen; erromeriak eta bertso saioak bai, baina bestelako gauza asko ere antolatzen ditugu, hip-hop saioak adibidez.

Bertso Eskola, musika banda, dantza taldea, joaldunak... Badago berrituz eta nahastuz lehengoari jarraipena emateko borondate moduko bat. Oteizak zioen bezala: “Zerbait berria sortzen duenak arraunlari baten tankeran egiten du, aurrera egiten du baina bizkarka, atzera begira, iraganera. Atzera begira lantzen du bere bide berria”. Nolanahi ere, beste zenbait talderen aldetik sumatzen da tradizioa ez dela ondo ezagutzen, eta berritzeaz eta gogoeta egiteaz ez da kezka handirik antzematen.

Antton Lukuren pasarte hauek adierazgarriak dira, *Euskal Kultura?* liburutik hartuak:

Behar bagenu orain arteko gure kultura definitu bi puntu nagusi atxik nitzake: alde batetik ez da boteretik jiten, boterea zirikatzetik baizik, eta ez da akademia batetik heldu, baina petik goiti doana.

Orain hiltzeko atarian gara (...). Hau hola da, herriak bere kultur herritartasuna abandonatu duelako, goretexez beztitzeko eta mendira joateko.

2.3 Elkarlana eta harremanak

Taldeen arteko harremanei dagokienez, Musika Patronatuaren ingurukoak elkarlanean ohituta daude, eta harremanak ondo finkatuta dauzkate. Taldeetako batek dioen bezala:


Herriko eragileekin elkarlanean segitzea da gure asmoa, herriari kultur produktu berritzaile eta erakargarriak eskaintzeko; azken batean, horixe baita herrigintza.

Elkarrekin antolatutako kontuek ahalegin berezia eskatzen dute, baina askotan motibagarria izaten da eta herritarrek eskertzen dute egindakoa. Azken urteotan Zumaian elkarlanean egindako jardueren adibide batzuk dira Eki Eguna (San Juan bezperan dantzariak, joaldunak eta gazteak), inauterietako jaia (aktoreak musikariekin), Bandaren kon-

tzertu bereziak (aktoreekin, bertsolariekin...), CDak (Banda eta San Pedro abesbatza), Euskararen Eguna (trikitolariak, abestiak, bertsoak eta dantzak) eta abar.

Taldean arteko harremanak irudikatu eta interpretazioak errazteko, mapa moduko bat landu nahi izan dut. Mapa **soziograma** baterako hurbilketa izan daiteke, horretarako taldeak hobeto bereizi beharko liratekeen arren. Gutxi gorabehera ondoan daude musika alorrekoak alde atetik, alderdi politikoen inguruko elkarteak bestetik, euskararen ingurukoak, etab.

Hiru tamaina bereizi ditut, irizpide nagusizat hartuta **kide aktiboen kopurua**.



Lau kolore erabili ditut **euskal kulturaren transmisioan** duten papera adierazteko. Kontuan hartu behar da koloreek ez dutela euskararen erabilera edo aldeko jarrera adierazten, baizik eta **euskal kultura zenbateraino sortzen eta ematen den**.

euskarazko sormena landu eta plazaratzen du taldeak

Gris ilu bestee euskaraz sortutako lanak erreproduzitzen ditu taldeak (errepertorioan sartuta...) eta sormen zati bat ere izan lezake

Gris argia: euskarazko lanak eskaintzen ditu taldeak, beste batzuen bitartez (paper pasiboa)

Zuria: zerikusirik ez du edo ia eskaintzarik ez du euskal kulturari dagokionez.

Marrek taldeen artean dauden harremanak adierazten dituzte.

----- Marra etenak noizbehinkako harremana edo lankidetzua puntuala adierazten du.

————— Marra jarraituak ohiko elkarlana eta harreman estua.


Taldean euskaraz sortzeari aparteko garrantzia eman nahi izan diot, horrek elkarrekin eraikitzea, proiektua *bizitza* eskatzen duelako. Antton Lukuk hauxe dio *Libertitzeaz* liburuan:

Badu antzerkiak bere barne alkimia, mikro jendartea da eta rola banatzen

Taldean euskaraz sortzeari aparteko garrantzia eman nahi izan diot, horrek elkarrekin eraikitzea, proiektua bizitza eskatzen duelako.

dira, euskarazko harremanak sortzen ditu errezipitzaileekin eta jende horiekin ez gara euskaraz baizik ariko beti (...). Horretako du trabes hain handia iparralde honetan.

2. irudia. Zumaiaiko elkarten mapa



Harremani dagokienez, ezkerraldean ikusten da musikaren ingurukoek dituztela lotura sendoenak, eta ohituta daudela, gainera, beste talde batzuekin elkarlanean aritzen ere. Filosofia horrek lagundu lezake gauza berriak sortzen, lehenik dauden hariak eta sareak sendotzen.

Koloreei begiratuta, sormenaren aldetik nahiko mapa positiboa da, askotan dagoelako euskal kultura sortzeko eta zuzenean emateko joera. Beltzez hiru talde daude, eta abesbatza bat halaxe irudikatu dut, sormena bultzatzen duelako (abesti berriak, hitzen moldaketak, bertsoak...) eta baita plazaratu ere. Talde batzuek kolorea ere aldatu dute azken hilabeteotan; esaterako, zine-forumeko taldea euskarazko lanak ematen ere hasi da azken hilabeteotan.

Bero mapa bezala ere ikus daiteke irudia, beltza gorri eta zuria urdin direla imajinatuta; horrek aukera ematen du Jon Sarasuak han eta hemen aipatu izan dituen *berogailu* horiekin lotzeko. Gakoa iruditzen zait *Hiztunpolisa* liburuan proposatutakoa:

Tokian tokiko gizarte eragileak eta bertako eragile publikoen indarrak norabide honetan jarriz, herri eta auzoetako kulturgile kolektibo eta sortzaileen konexioa sustatzea da garaiaren aukeretako bat. Musika talde, abesbatza, bertso eskola, antzerki talde, banako sortzaile, musika eskola eta abarretan energia sortzaile barreiatu handia dago gure herri eta hirietan.

3. BEROGAILUAK, SUAK ETA TXINPARTAK

I Hirugarren atal honetan, aurreko bietan ikusitako egoera eta elkarleen mapa aintzat hartuta, proposamen edo ideia batzuk plazaratu nahi ditut. Oro har, taldeen arteko harremanak bultzatu eta proiektu partekatuek sustatzea mesedegarri izango litzateke alderdi askotatik, bai herri mailan eta eskualdean eta maila handiagoan ere bai. Hara adibide batzuk:

— Herri mailako edo eskualdeko ekitaldiak lantzea; esaterako, Debagoiena aldean egiten dituzten toberak, edo pertsonaia baten bizia gogorarazteko antzezlanak⁵, pastoralen antzekoak. Diziplina askotako artistak elkarlanean aritzea eskatzen du horrek.

— Beste herrietako taldeekin trukeak, bisitak edo txangoak egitea. Esaterako, dantza taldeko eta Musika Eskolako arduradun batzuk Lasarte-Oriako Kukuka taldea ezagutzera; edo antzerkiko ikasle eta irakasleekin Iparraldeko ereduak ikustera (Antton Lukuren eta Mattin Irigoien).

— Bertso Eskola eta musika taldeak (banda barne) harremanetan jartzea: hitzak egiteko, bertso musikatuak lantzeko...

— Musikaren inguruko topaketak⁶ bultzatzea, musikagileak eta zaleak harremanetan jartzeko.

Aurreko ataleko mapari begiratu eta taldeekin arteko ehunka *igurtzi* bultza daitezke, eta horrela sortutako txinparta horietatik su koxkorrak sortuko lirarteke. Zumaian hori eragiteko bi *berogailu* nagusi ikusten ditut, gainerakoak gutxietsi gabe, beste... herri askotan ere motor izan daitezkeenak: herri ekimeneko hedabideak (Baleike kultur elkartearnak) eta Zumaiako Bertso Eskola. Bi elkarte horietako partaide naizen aldetik, bakoitzak zer ekarpen egin lezakeen azaldu nahi dizuet puntu banatan.

***Tokian tokiko
gizarte eragileak
eta bertako
eragile publikoen
indarrak
norabide honetan
jarriz, herri eta
auzoetako
kulturgile
kolektibo eta
sortzaileen
konexioa
sustatzea da
garaiaren
aukeretako bat.***

Zumaian erreferente argia da Baleike, zuzi edo itsasargi moduko bat talde askorentzat, batez ere hilabetekariaren eta www.baleike.com gunearen bitartez. Horren erakusgarri argia da aldizkariaren 20. urteurrenean ateratako zenbaki berezia, 2014ko uztailean, talde eta norbanako askoren aitortza eta eske ona jasotzen zituena. Bozgorailu lanak ondo betetzen dituela argi dago, eta berogailu ere izan daiteke, eragile, saregile, kultur arloan ardura gehiago hartzen jarraitzen badu.

3.1 Hedabideen zuzia

Zumaian erreferente argia da *Baleike*, zuzi edo itsasargi moduko bat talde askorentzat, batez ere hilabetekariaren eta www.baleike.com gunearen bitartez. Horren erakusgarri argia da aldizkariaren 20. urteurrenean ateratako zenbaki berezia, 2014ko uztailean, talde eta norbanako askoren aitortza eta eske ona jasotzen zituena. *Bozgorailu* lanak ondo betetzen dituela argi dago, eta *berogailu* ere izan daiteke, eragile, saregile, kultur arloan ardura gehiago hartzen jarraitzen badu.

Tokikom proiektuaren bultzatzaile izan da *Baleike*, zuzendaritzako kide ere bai, eta eskualdeko hedabideak elkarlanean jartzeko lanetan aritu da. Gertuko eta urrunagoko ikuspegia ere landu du nolabait, betaurreko bifokalekin bezala.

Proiektu sendoa du *Baleikek*, Rikardo Arregi saria irabazitakoa, eta komunikazioari lotuta ildo argia du: berrikuntzari ateak ireki, bidera-garritasuna aztertu, malgutasunez eta ausardiaz jokatu, kaleko kazetaritza landu, sare sozialetan mugitu... Horri eustea funtsezkoa da, Gorka Zabaleta zuzendariak urteurreneko zenbakian zioen modura, burujabetza informatiboak urrea balio duelako.

Webgunea berritzearekin batera, puntuEUS domeinua hartuko du laster, eta proportzio ona du **komunitate birtuala** indartzeko: elkarleen blogei bizitasuna eman, euskaraz harremanetan jarri taldeak eta kulturgileak... Horrekin batera, ikus-entzunezkoen aldeko apustua sendotzeko aukera ere hortxe du: albistegi modukoak grabatu, arnasa luzeko lanak...

Kultura Mahaia mugiarazteko gaitasuna eta indarra erakutsi ditu *Baleikek*, une batzuetan lidergoa eta paper aktiboa hartuta. Indar horren froga da aldizkariaren 20. urteurreneko egitaraua, eta batez ere *Baleike Eguna*, emaitza ikusgarria izan zelako. Azken jai horren helburua izan zen mugimendua eragitea, herriari protagonismoa ematea, taldeak elkarlanean aritzea, festa giroa sortu eta zabaltzea, etab. Antzeko filosofia (ingurumena, auzolana, feminismoa, hurbiltasuna...) ikusi dut 2014ko beste bi jai hauetan ere: *Argia Egunean* eta *Topa Egunean*.

Euskal kulturaren bultzatzaile aritzeko aukera du, era berean, Udalarekin edo beste elkarte batzuekin batera: ikastaroak eta hitzaldiak antolatatu, herriko kontuekin lotuta (toponimia, historia, literatura, ahozko ondarea...), kultur irteerak, ibilbide bereziak, herria hobeto ezagutzeko ikerketak, argitalpenak, etab.

Kontsumoko kulturari lotuta ere, bitartekari lana egin lezake *Baleikek*, *Kultur Errota* eta antzeko eskaintzak jasotzen dituenean, herriko taldeei edo ostalariei aukera eman liezaiekeelako euskal kultura eskaintzeko.

3.2 Bertsogintzaren su txikiak

Su txikiagoa da Zumaiako Bertso Eskolarena, eta azken urteotan indar pixka bat galdu du, gainera. Hala ere, oraindik ekarpen politak egin ditzake, batez ere beste talde batzuekin gauzak egiteko izan dezakeen malgutasunagatik. *Txiskero* batek bezala, suak han eta hemen pizteko balio dezake, Zumaiako ekosistema linguistiko eta kulturala aberasteko.

Zumaiako Bertso Eskola lehenetakoa izan zen, 1982 inguruan eratu eta hezkuntza alorreko egitasmoen aitzindaria izan zen. Joanito Dorronsoro da sortzaileetako bat, eta *20 urte kantari* liburuan azaldu zituen lehen urteetan egindakoak.

Azken urteotako joera, berriz, izan da lehia eta gozamina hobeto uzartzeko ahalegina egitea. Orain herri mailako txapelketak taldeka eta gaztetxean egiten dira, *Bertsotan jai* izena du saioak. Bertsopaperetan ere hasieran sortak eskatzen ziren, eta orain kalera eramane da lehiaketa, nahikoa da bertso bat egin eta kaxan botatzea. Bestelako funtzioak ere betetzen ditu Bertso Eskolak; batetik, megafonia ekipoa lagatzen die herriko taldeei, eta Udalari ere bai; bestetik, txapelketa handien garaian, herriko bertsozaleei zerbitzua eskaintzen die: sarrerak salgai jarri, autobusak antolatu...

Taldea indartzeari dagokionez, eskualde mailan elkartzen eta elkarrekin gauzak antolatzen hasteak eman liezaioke arnasa pixka bat: erronka moduko afariak trukean, lagunarteko txapelketak, etab. Bestetik, haurrekin eta gaztetxoekin sormena eta gozamina⁷ bultzatu lezake, bereziki euskara aisialdiarekin lotzea funtsezkoa da, ondo pasatzearekin.

Izan ere, txikitatik ikas dezakete neska-mutilek beste era batera lan egiten. Oikian, adibidez, motibazioa, antolaketa eta auzolana lantzen dituzte; bertso liburuxka atera nahi zuten, eta gaztetxoek jaietan orga bete jenero hartu eta txartelak saldu zituzten, zozketa egiteko; auzotarrek, ordainetan, Gabonetan liburuxka bana jaso zuten etxean.

Herriko kulturgintzari dagokionez, lanerako aukera ugari ditu Bertso Eskolak. Esaterako, ikasturtean zehar euskaltegira bisitan joan daiteke eta saiotxo bat eman: zer dira bertsoak eta nola egiten dira? Zaharren egoitzetara ere bisitak egin daitezke, eta auzoetako jaiak ere plaza egokiak dira hasi berrientzat. Bakarrik ala beste talde batzuekin elkarlanean, ikastaro eta hitzaldi interesgarriak antola ditzake Eskolak, eta emanaldi bereziak eskaini ere bai: Eneko Dorronsororen *Xalbador* dokumentala, Etxepare RAP...

Sormenaren ikuspegitik, bideogileekin harremanetan jarri eta lehiaketa interesgarriak egoten dira parte hartzeko: *Beldur barik, bertso movieda*... Musikariekin elkarlanean, berriz, abestiak sortu eta CDa

Kontsumoko kulturari lotuta ere, bitartekari lana egin lezake Baleiekek, Kultur Errota eta antzeko eskaintzak jasotzen dituenen, herriko taldeei edo ostalariei aukera eman liezaiekeelako euskal kultura eskaintzeko.

**Jon Sarasuak
(Amaren) SUA
ideia erabili izan
du, "aitaren
etxea" ideia-
ren ondoan, eta nik
suari URA
erantsi nahiko
nioke, elementu
indartsua eta
iradokitzailea
delako kultura
aztertze-
ko: gizartearen
atxikimendu gero
eta likidoagoa
adierazten du,
kultur fluxua...**

grabatzea aukera ederra da, eta eredu egokia izan daiteke Irunen 2013an egindako lana, "Gure Berts(i)oa".

Bukatze-ko, bestelakoak ikerketa lanak ere egiteko gaitasuna badu Eskolak: azterketak, biografiak, elkarrizketak... Adibidez, herriko bertsolarien fitxak eta historia jaso, santa eskearen bilakaera, etab.

4. KULTURAREN ITURRIA SUTONDOAN

I Laugarren atal honetan maila orokorragoan lan egiteko estrategia batzuk proposatu nahiko nituzke, hau da, herri mailan kultur politika egiteko orduan aintzat hartu beharko liratekeen oinarri batzuk.

Jon Sarasuak (Amaren) SUA ideia erabili izan du, "aitaren etxea" ideia-
ren ondoan, eta nik suari URA erantsi nahiko nioke, elementu in-
dartsua eta iradokitzailea delako kultura aztertze-ko: gizartearen atxiki-
mendu gero eta likidoagoa adierazten du, kultur fluxua... Sua eta ura
ondo kudeatzea ez da beti erraza izaten, baina ahaleginduko naiz
jarraibide batzuk ematen.

4.1 Oinarriak: auzolana eta komunitatea

Udaletako ordezkariak eta Kultura Mahaian elkartzen direnek aurrera begira lan egiteko kontuan hartu beharko lituzketen oinarriak dira elkarlana eta auzolana. Auzolana ez da kontu berria, baina garai zail hauetan aurrera egiteko formula gisa gero eta gehiago agertzen ari da. Igor Elortzak eta Gotzon Barandiaranek horren aldeko apustua garbi egin izan dute, eta arrazoitzeko dekalogo⁸ ere osatu zuten. Bi kulturgile horien ustez, euskarazko kulturgintzaren ardatz nagusiak, plaza eta harreman sarea dira. Horregatik hartzen du pisu berezia KOMUNITATEA kontzeptuak: sareak aztertu, bultzatu eta lidergoa baliatu beharra dago hiztun komunitateak sendotzeko. Adibidez, Durangoko Azokak azken urtetan izan duen bilakaera ildo horretan koka daiteke. Herri mailara eramanda, Lasarte-Oria *Kukuka* taldean dantzarekin eta antzerkiarekin herriaren *eraldaketa soziala* bultzatzen ari dira.

Komunitate edo sare horri begira, osagai garrantzitsuak dira alor batean edo bestean aritzen diren sortzaile eta artistak ere, kulturgileak. Zumaian 100 kulturgile baino gehiago daude, horietako batzuk taldeetan ere badabiltza, eta asko dira elkarlanerako gauza berriak sortzeko prest daudenak.

4.2 Sormena eta gozamena

Taldeetan aritzen denak egiten duen horrekin ondo pasatzea ezinbestekoa du horretan jarrai dezan. Emozioak landu behar dira, gozamenaren bila aritu, eta jardunaldiak, jaiak eta antzekoak egiterakoan herriko taldeei eta sortzaileei tokia egitea garrantzitsua da. Ondarroan *Marabilli* topaketa esperientzia aberatsa da oso: herriko taldeak eta kanpoko gonbidatuak nahasian aritzen dira. Inguruan begiratuta beste adibide interesgarri batzuk ere badaude: *San Agustin* elkargunea (Azpeitia), *Putzuzulo* gaztetxea (Zarautz), etab. Bizkai aldean ere, berriz, eredu izan daitezke *Astra* lantegia (Gernika) eta *Plateruena* (Durango).

Kontsumitzaile pasiboak elikatzea errazagoa da sortzaile aktiboak bultzatzea baino. Hala ere, ikastaroak antolatzeke orduan sormenari ere begiratzea komeni da. Zarautzen, esate baterako, *Hesolak* izeneko ekimena abian jarri dute, inguruko artistak irakasle jarrira: bideoak, antzerkia, graffitiak...

Herriko sortzaileen katalogo bat eratzeak ere asko lagundu lezake artistak ikusgai jartzen: direktorio moduko bat⁹, nola sortzen duten erakusten duten piezak, etab.

4.3 Herriari begirakoa

Herri identitatea lantzeak asko lagundu lezake nork bere herria hobeto ezagutu eta maitatzeko ere. Halaxe esan zuen J.M. Hiribarrenek XIX. mendean ere: "Deusek ez du bihotza hala kilikatzen, nola jaio-tokiak, bada ezagutzen". Imanol Azkueren *Zumaia, izena eta izana* izan daiteke espiritu horren adibide ona. Materialak eta tonua aukeratzeko orduan, galdera hau izan omen zuen gogoan: "zer nahiko nuke jakitea Zumaiaz nire seme-alabek?" Horiek guztiak egiten dute berezi Zumaia, inguruko herriekin alderatuta.

Kontu honetan sakontzeko proiektu oso interesgarria izango litzateke **wiki-gune** batean euskaraz jasotzea Zumaiarekin zerikusia daukan guztia, daukagun jakintza, eta eduki horiek guztiak esteka bidez elkarrekin erlazionatuta egotea: Zumaiako hitz bereziak, toponimoak, historia, pertsonaiak musika, bertsoak, argazkiak, elkarteak, sortzaileak, kirolak... Gune jakin batean *herriko entziklopedia* auzolanean bildu, denen eskura jarri eta etengabe elikatzeak oinarri ona jarriko luke bestelako materialak sortzeko ere: didaktikoak, aisialdikoak, ikerketarako...

4.4 Ikuspegi estrategikoa, euskara ardatz hartuta

Orain artean egin diren gogoeta estrategikoetan azpiegituren inguruan hitz egin izan da gehienbat, eta elkarte bakoitzak bere buruari begiratu

Taldeetan aritzen denak egiten duen horrekin ondo pasatzea ezinbestekoa du horretan jarrai dezan. Emozioak landu behar dira, gozamenaren bila aritu, eta jardunaldiak, jaiak eta antzekoak egiterakoan herriko taldeei eta sortzaileei tokia egitea garrantzitsua da.

**Kultura arloan
gogoeta egitea
ezinbestekotzat
jotzen dut:
euskararen
aldetik duen
garrantzia
azpimarratzea,
estrategiak
adostea, ereduak
ezagutzea,
artikulazioa
hobetzea...**

izan dio gehienbat, ez herriak beharko lukeenari. Ondorioz, kultura arloan gogoeta egitea ezinbestekotzat jotzen dut: euskararen aldetik duen garrantzia azpimarratzea, estrategiak adostea, ereduak ezagutzea, artikulazioa hobetzea... Metodologia aldetik baliagarria izan daiteke *Geuk geure kulturaz* ekimenak Durangon erabilitakoa, *gune irekia* edo *open space* izenekoa; 2014ko martxoan egindako gogoetan, esaterako, euskal kulturaren inguruan saio bat baino gehiago egin ziren. Zumaian bertan egin daiteke antzeko zer bait, eta kultur taldeen mapa balia daiteke ideia-jasa bat lantzeko, komunikazioa hobetzeko proposamenak egiteko, harremanak irudikatzen, etab. Beste herri batzuetako adibide eredugarriak badaude, hizkuntza eta kultura nola landu dituzten ikusteko: Otxandio, Zerain...

Joseba Azkarraga Etxagibel soziologoak *Jakin* aldizkariko 202. zenbakian artikulu mamitsua argitaratu berri du, "Harrigintza berria" izenekoa. Burujabetzaz ari delarik, gutxienez lau kontzeptu bereizten ditu: Estatugintza (aitaren etxea), Naziogintza, Euskalgintza (amaren sua), eta Herrigintza. Euskarazko kulturgintzak azken bietatik elikatzea eskatzen du bereziki.

2015eko hauteskundeak gainean ditugun honetan, garai egokia da ordezkari politiko izango direnei eskatzeko epe ertainera begiratzea, baliabide gehiago jartzea eta, euskarazkoa erdigunean jarrita, kulturari behar adinako garrantzia ematea ere bai. *Sorguneak* ikertegiak Gipuzkoako Foru Aldundiarentzat txosten bat egina du¹⁰, eta euskal kulturaren kontzientzia harrazteko lanean jarraitu beharko dugu hurrengo legegaldian ere.

4.5 Sanjuaniturri sua eta ura

Bukatzeko, Kultura Mahaiaren irudiak gelditasuna transmititzen didanez, zer bait dinamikoagoa proposatu nahiko nuke: *Kulturriturria*. Txoko berezi bat badugu Zumaian, herriaren erdigunean, etxerik zaharrenen erdian: *Sanjuaniturri* izenekoa. Iturriak bai, balio du transmisioa eta mugimendua adierazteko. Hara Jon Maiak adineko lekukoei¹¹ abestutako bertso baten amaiera, izenak berak SUA eta URA biak biltzen dituela frogatzen duena:


Zuek zarete gure hizkuntzak
duen San JUAN itURriA
aska zaharra badauka ere
beti dator ur berria

San Juan SUA bertan egiten da, dantzariekin jai berezia ere bai, eta esanahi berezia du herritarrentzat. Garai batean kalean zeuden iturriak, eta etxeetan ez zegoen urik; jendea hara joaten zen ur bila, han elkartzen

zen... Iturriaren barruan ikusten ditut taldeak, Udala eta kultur-gileak; denen artean jartzen dute **URA** nahi duenaren esku: liburuak, bertsoak, olerkiak, filmak, abestiak, kankak, dantzak, kontzertuak, jaialdiak, ikuskizunak, erakusketak, azokak, lehiaketak, ikastaroak, hitzaldiak...

Zumaian eta beste hainbat tokitan denon artean iturria urez hornitzen jarrai dezagula, gure kultura bizitzen eta biziarazten lagunduko digun hura eskura jartzeko: **EUSKURA**.

3. irudia. Sanjuaniturri. Daniel Carballo, 2014



Zumaian eta beste hainbat tokitan denon artean iturria urez hornitzen jarrai dezagula, gure kultura bizitzen eta biziarazten lagunduko digun hura eskura jartzeko: **EUSKURA.**

OHARRAK

1. Eredugarria da Orion ikastetxeekin eta herriko taldeekin egiten ari diren lana.
2. Urteak dira, adibidez, bertso udalekuak antolatzen direla batean eta bestean.
3. Aipagarria da Imanol Epeldek proposatutako "Autolaguntza gida ikastetxeetako hizkuntza normalkuntzako teknikarientzat", www.27zapata.com gunean.
4. Amaia Zinkunegiren "Debako kultur taldeen diagnostikoa". EKT graduondoko proiektua, 2010-11 ikasturtea. Nekane Goikoetxearekin batera egindako artikulua batean daude emaitza nagusiak: "Euskal kulturaren tokia hizkuntz politikan: Debako kultur bizitzaren azterketa" in BAT aldizkaria, 83 zenb. 2012-2.

5. Esaterako, Aita Mari marinel ezaguna itsasoan hil zela 150 urte beteko dira 2016 hasieran.
6. Eredu bat baino gehiago abiarazi dira azken urteotan: *Kafea eta gailetak* Gernikan, *Papezko kontzertuak* Zarautzen eta Donostian...
7. Araban eta Iparraldean bertso eskolek gazteengan duten eragina aztertzen ari dira Manex Agirre eta Miren Artetxe, eta gune euskaldunagoetan ere harremanetarako hizkuntza finkatzeko garrantzi handia dutela iruditzen zait.
8. Besteak beste, hemen: "Auzolana euskarazko kulturgintzaren ardatz" in BAT aldizkaria, 83 zenb. 2012-2.
9. Euskal Herri mailan Okela Sormen Lantegia ari da zerbait egiten.
10. Gune honetan ikusgai: www.monfragon.edu/eu/ekt/ikerketa/oraingoikerketak
11. Zumaiaiko ahotsak, www.ahotsak.eus/zumaia_gunean.

BIBLIOGRAFIA

- Azkarraga, Joseba (2014). «'Harrigintza' berria. Apunteak hazkunderosteko euskal herrigintzaz» *Jakin* Aldizkaria 202.
- Azkue, Imanol (2008). *Zumaia, izena eta izana*. Zumaia: Udala.
- Dorronsoro, Joanito (2003). *20 urte kantari*. Zumaia: Bertso Eskola.
- Epelde, Imanol (2014). "Autolaguntza gida ikastetxeetako hizkuntza normalkuntzako teknikarientzat" *27 zapata bloga* <http://www.27zapata.com/?p=1047> [Azken kontsulta 2014-12 15].
- Goikoetxea, Nekane eta Amaia Zinkunegi (2012). "Euskal Kulturaren tokia hizkuntz politikan: Debako kultur bizitzaren azterketa", *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 83, 57-81.
- Luku, Antton (2010). *Euskal kultura?*. Pamiela.
- Sarasua, Jon (2013). *Hiztunpolisa, euskaltasunaren norabideaz apunteak*. Pamiela.